



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko urriaren 4a

109. ZK.

### A U R K I B I D E A

E SAILA:

#### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- 10-22/MOC-00084. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ibilbide osasungarriak sor ditzan hiriguneetan, aldirietan eta landaguneetan. Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkeztu du (3. or.).
- 10-22/MOC-00085. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da konpromiso publikoa har dezan Nafarroako ekintza eta esku-hartze sozialeko hitzarmen sektorialetik eratorritako aurrekontu-partidak finantzatzeko. Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztu du (5. or.).
- 10-22/MOC-00086. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da energiako enpresa publiko bat eratzea susta dezan. Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (6. or.).
- 10-22/MOC-00087. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru erkidegoaren intereseko inbertsio deklaratu dezan Magnesitas Navarraren ustiapen proiektua, Artesiaga aldean. Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak aurkeztu du (7. or.).
- 10-22/MOC-00088. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako eta Espainiako Gobernuak premiatzen dira Gero-indarkeriaren aurkako Estatu Itunari dagozkion funtsen ordainketa desblokeatuko duten izapideak amaitu ditzaten. Jabi Arakama Urutiaga jaunak aurkeztu du (8. or.).
- 10-22/MOC-00089. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako eta Espainiako Gobernuak premiatzen dira beren zerbitzu publikoetan arreta presentzialaren maila pandemiaren aurreko mailetara igo dadin urte hau amaitu aurretik. Ángel Ansa Echeagaray jaunak aurkeztu du (9. or.).
- 10-22/MOC-00090. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua, udalak eta alderdi politikoak premiatzen dira lan egin dezaten lortze aldera herri-festak eta herrietako jaiak anitzak eta integratzaileak izatea, bandalismo politikorik eta gorrotorik gabeak. Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztu du (10. or.).
- 10-22/MOC-00074. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Lan Osasunaren Kontseiluan negozia eta adostu ditzan lan-istripuen aurkako neurri berriak eta ekintza osagarriak. Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordean izapidetzea (11. or.).
- 10-21/MOC-00125. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Daniel Ortigaren Gobernu Sandinistak Nikaraguako herriaren aurka baliatutako errepresioa, eta nikaraguarrei dei egiten die etsi gabe jarrai dezaten askatasun demokratikoak aldeztu. Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordeak onetsia (12. or.).

—10-22/MOC-00063. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Estatuko Gobernua premiatzen dira jaiotza-baimenak zabaltzera familia gurasobakarretara. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko, eta Barneko Batzordeak onetsia (12. or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **10-22/MOC-00084. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-tzen da ibilbide osasungarriak sor ditzan hiriguneetan, aldirietan eta landaguneetan.**

### *ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita ibilbide osasungarriak sor ditzan hiriguneetan, aldirietan eta landaguneetan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Kultura eta Kiroleko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Munduko herrialderik gehienetan, jarduera fisikoarekin lotuta dauden gaixotasun ez-transmitigarriak osasun publikoko problemarik handiena dira.

Baieztapen bipil hori, OME-Osasunaren Mundu Erakundeak jaulkia, datu hagitz esanguratsuz hornituta dago. Halatan, jarduera fisikorik eza da, mundu-mailako hilkortasunean, arrisku-faktore nagusietako bat, bai eta zenbait eritasunen zergati nagusia, hala nola minbizia, diabetesa etaardiopatiak.

Iturri horiek diotenez, jarduera fisikoaren maila egoki batek arriskua jaisten du hipertentsiorako, istripu zerebrobaskularretarako, diabeteserako, minbizi-mota batzuetarako eta depresiorako, eta hezurren osasuna eta osasun funtzionala hobetzen ditu.

Gaur egun, munduko gizonezko adindunen gutxienez % 25ek ez dute egiten beren osasunari mesede egiteko beharrezkoa den jarduera fisikoa; eta, emakumezkoen kasuan, portzentajea % 33raino igotzen da. Hori gertatzen da, batez ere, sedentarismoaren gorakadagatik, garraiobide "pasiboak" erabiltzeagatik eta, azken batean, urbanizazio-prozesuak jarduera fisikoari mesederik egiten ez dioten faktoreak sortu dituelako (ariketa fisikoa egiteko moduko gune libreen beherkada, trafiko-dentsitatea, aire-kalitate kaskarra, eta abar).

Horren guztiaren ondorioz, OMEk mundu-mailako estrategia bat ezarri zuen, helburu oso argia duena: osasuna sustatu eta babestea, elikadura osasungarriaren eta jarduera fisikoaren bitartez. Horretarako, helburu-sorta bat ezarri zuen, horietako bat zela administrazio publikoek politikak eta ekintza-planak onetsi eta aplikatzea, jarduera fisikoa modu jasangarri eta integralean gehitzeko, halako moldez non gizarteko sektore guztien parte-hartzea lortuko baita.

Horretarako neurriak ezartzerakoan, beharrezkoa zaigu gure herritarren kirol-ohiturak ezagutzeta, ahalik eta partaidetza handiena duten jarduerak egite aldera. Gurean, 'Espainiako kirol-ohituren inkesta' egiten da, bost urtean behin Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak prestatua.

Egindako azken inkestako datuek azaltzen dute azken urtean kirola populazioaren erdiak baino gehiagok egin zuela, eta hori aire zabalean egitea nahiago dutela gehienek.

Modalitateei dagokienez, inkesta honek bereiz ikertzen du, duen garrantziagatik, ibili edo paseatzearena, jardun horretan populazioaren % 70,6 aritzen denez; hots, portzentaje oso altua. Korrikalaritzari dagokionez, % 30,9 lerratzen dira aukera horretara.

Begi-bistakoa da azken urteotan nabarmenki hazi dela kirolgintza –batez ere, pandemiako epealdi kritikoenean–, eta administrazio publikoen betebeharra da urratsak egitea hiri- nahiz landaguneak moldatzeko, populazioari kirol-jardunerako irispidea ematearren, horrela hiri-, herri- eta landagune aktiboagoak tankeratze aldera.

Espainiako herri ugarian abiarazitako soluzio-bide bat, atxikimendu handia lortu duena, izan da ibilbide osasungarriak sortzea hiri-barneetan, aldirietan eta landaguneetan.

Aipatu ekimena gauzatzen da hiri osoan eta horren inguru hurbilenean barreiaturik dauden ibilbide batzuen taxuketan, aukera ematen dutenak paseatzeko, ibiltzeko, korrika egin edo jarduera fisikoak egiteko, parametro zientifikoaren arabera neurtuak eta tamainatuak (intentsitate-maila, egitako distantzia, topografia, zailtasuna, denbora eta abar), horiekin batera gomendio batzuk ere ematen direla jarduera egin aurretik, bitartean eta ostean jarraitu beharrekoak. Horrela, xede du gai honetan prestigio onartua duten zenbait entitateen populazio adindunaren jarduera fisikorako eta sedentarisismo-murritzapenerako emandako aholkuak bete daitezten.

Nafarroak berdegune nahiz landagune hedatsuak dauzka, herri nahiz hiri eta horien inguruetan, kirolariek eta kirolzaleek kirola egiteko nahiz paseatzeko asko erabiltzen dituztenak. Hori dela eta, jarduera fisikoaren, ongizate pertsonalaren eta osasunaren sustagarri izateaz gain, paseatzekoak nahiz kirola egitekoak (ariketak, kalistenia, eraztunak...) diren zirkuituak atontzeak onarpen handia eta erabiltzaile asko lortu eta gizarte-partaidetzarako gune aproposak eskainiko lituzke lurralde osoan zehar.

Mozio honen xedea da Gobernuak premiatzea hiri-barneetan, aldirietan eta landaguneetan egiturak ezar ditzan, modua emanen dutenak jarduera fisikoa ingurune atsegin eta ezagunetan egiteko, dohainik eta ingurumenaren segurtasuna eta errespetua ahalbidetuko duten baldintzetan, horrela gizarte-partaidetza sustatzeko eta sedentarisismoa ekiditeko.

Iruñak “Metrominuto” ekimena bezalako adibideak dauzka. 2030 Agendako printzipioen gerizpean kokaturik dago, eta hona dakargun proposamenarekin ezaugarri batzuk amankomunean ditu. Oraindik ere garapenean dago, eta hirigunean zeharreko paseoa bakarrik jorratzen du; ez, globalkiago harturik, ingurune orotako jarduera fisikoa.

Horregatik uste dugu jarduera fisiko eta osasungarriaren aldeko apustuak globalagoa eta orokorragoa behar duela izan Nafarroako lurralde osoan; batez ere orain, sozialki gorantz egin duenean aldirietako eta landaguneetako jarduera fisikoekiko eta paseoekiko interesak.

Horregatik guztiagatik, Navarra Suma talde parlamentarioak ondoko erabaki proposamena aurkezten du, aintzat hartua eta, kasua bada, gauzatua izan dadin:

Nafarroako Parlamentuak honakoetara premia-tzen du Nafarroako Gobernuak:

1. Nafarroako Foru Komunitateko hiriguneetan, aldirietan eta landaguneetan ibilbide osasungarri eta seinaleztatuak atontzera, jarduera fisikoaren lagungarri, zientzia- eta kirol-parametroetan oinarrituak, beharrezko baliabide materialekin eta gai honetan nazio-mailako nahiz nazioarteko erakunde eta entitate garrantzitsuenek (OME, Osasun Ministerioa eta Kirolaren Kontseilu Nagusia) emandako gomendioei jarraikiz.

2. Ibilbide horiek lurralde osoan zehar estrategikoki banaturik egon daitezten diseina eta planifika ditzan, halako moldez non nafar guztiek ibilbide horietako bat beren ohiko bizilekutik hurbil izanzen baitute eta ibilbide horiek erregulartasunez erabili ahal izanzen baitituzte.

3. Azter dezan ekimen hau sektore publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlanean aurrera eramateko modua, beste hiri, erkidego eta herrialde batzuetan egin ohi den bezala, non ibilbide hauek entitate desberdinen sostengu logistiko eta ekonomikoa izaten baitute, gizarte-ongizatearen eta jarduera fisikoa sustatzearen mesedetan.

Iruñean, 2022ko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

## **10-22/MOC-00085. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-tzen da konpromiso publikoa har dezan Nafarroako ekintza eta esku-hartze sozialeko hitzarmen sektorialetik eratorritako aurrekontu-partidak finantzatzen segitzeko.**

*PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita konpromiso publikoa har dezan Nafarroako ekintza eta esku-hartze sozialeko hitzarmen sektorialetik eratorritako aurrekontu-partidak finantzatzen segitzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zenbait urteko negoziazio baten ondoren, 2021eko urtarrilaren 8an sinatu zen Nafarroako Ekintza eta Esku-hartze Sozialaren Sektoreko lehen hitzarmen kolektiboa, gure erkidegoan zaurgarritasun sozialeko egoeran dauden pertsonentzako arreta-zerbitzuetako plantillen lan-baldintzak hobetu eta arautzeko.

Nafarroan arlo soziokomunitarioan eskaintzen diren zerbitzurik gehienak administrazio publiko desberdinek kontratatuak, itunduak edo diruz lagunduak dira, administrazio horiek zehazki udalak edo Nafarroako Gobernua direla. Nabarmendu behar da zerbitzu horietako gehienak Gobernuaren Gizarte Zerbitzuen Zorroko prestazio bermeak direla.

Emandako zerbitzuen kalitatea hobetu ahal izatearren, Foru Parlamentu honek zenbait aldiz adierazita dauka sostengua ematen diola, besteak beste mozioen bidez eta are horretarako aurrekontu-partidak sortuz, hitzarmen kolektibo hori sinatua izateari.

2022 honen hasieran, hitzarmena aurkaratu egin zuen esku-hartze sozialeko enpresaburuen estatu-mailako elkarte batek, alegatuz ez zela negoziazio-mahaira gonbidatua izan eta horretan parte hartzeko eskubidea zeukala; horrenbestez, hitzarmenaren deuseztasuna eskatu zuen, forma-akatsa alegatuz. Irailaren 28an egin da epaiketa, probintzia-auzitegian. Aipatu hitzarmenaren deuseztasunak ekar lezake Nafarroan iritsitako akordioa geraraztea eta atzerakada bat, eta Nafarroan hartzen diren erabakien aurkako esku-sartzea izan liteke.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki-proposamenak aurkezten ditugu:

1. Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du funtsezkoa den sektore honentzako lan-araubidea, ezbaian dauden egitate juridikoetan sartu gabe. Hori dela-eta, beharrezkotzat jotzen du plantillek hitzarmen berekia izan dezatela, bai lan-harremanei bai gizarte-zaurgarritasun edo -arriskuan dauden herritarrei ematen zaizkien zerbitzuei kalitatea eta egonkortasuna emanen diena.

2. Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du konpromiso publikoa har dezan hitzarmenetik eratorritako aurrekontu-partidak finantzatzen segitzeko, baita hitzarmen horren deuseztasuna judizialki aldarrikatuko balitz ere.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du konpromisoa har dezan, deuseztasuna deklaratu izatearen kasuan, agente aktiboa izateko eta hitzarmen berri baten negoziazioa finantzatzeko, orain arte egin duen bezala eta baldintza beretan.

Iruñean, 2022ko irailaren 28an

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

## 10-22/MOC-00086. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-tzen da energiako enpresa publiko bat eratzea susta dezan.

### NAFARROAKO PODEMOS AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita energiako enpresa publiko bat eratzea susta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, urriaren 6ko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Egoera kezkarria bizitzen ari gara, arlo guztietako prezio-gorakadarekin eta herritar gehienentzat aurre egin ezinekoak diren inflazio-indize batzuekin. Gorakada horren jatorria, besteak beste, energien, elektrizitatearen, gasaren eta erregaien prezio neurrigabearen dago; prezio horiek, ziurrenik, beren goranzko joerari eutsiko diote datozen hilabeteetan. Prezio-igoera horren ondorioz Nafarroako familia eta enpresa txiki eta ertain askok aurre egin behar dieten estutasun ekonomikoak larriagotu besterik ez dira eginen datozen hilabeteetan, ezen eguraldi onaren amaierak eta argi-orduen beherakadak energia-kontsumoa handiagotzen baitute. Egoera hau samurtzeko koiunturazko neurriez gain, nabaria da egiturazko neurriak behar direla, ezinbesteko ondasun dugun energiaren prezioaren gaineko kontrol erabatekoa duten enpresa pribatuekiko daukagun menpekotasun energetikoa aldatuko dutenak.

Azaldu dugunaz gain, aurre egitera behartuta gauden erronka handietako bat energia-eredu berri baterako trantsizioa dugu, eta halaxe jasotzen du 4/2022 Foru Legeak, martxoaren 22koak, Klima-aldaketari eta energia-trantsizioari buruzkoak. Egungo ereduarekin ez dirudi sinesgarria denik ipinitako helburuei ekitea, eta beharrezkoa da energia-ereduan aldaketa sakon bat egitea; horrek ezinbestean esan nahi du gaur egungoa berregituratu beharra dagoela, kontrol publikoarekin, monopoliorik gabe eta prezio-ezarpenarekin.

Premiazko neurri egiturazko horietako bat, energia-ereduaren berdetasunaren ikuspegitik aldatzerantz aurrerapausoak emanen dituena eta prezio-igoerak Nafarroako familien eta enpresa txiki eta ertainen ekonomietan egiten duen kaltea murriztuko duena, jadanik jasota dator Gobernu honen programa-akordioan. 2019an lau alderdi sinatzaileek adostu genuen neurria izan zen "energia-operadore publiko bat eratzearen komenigarritasuna aztertzea".

Gaur den egunean, abuztu amaierako KPIak % 10,5eko igoera agertzen zuenean, elikagai-garestitzea mailarik altuenera iritsi denean ia hiru hamarkadatan, eta elektrizitatea 2021eko abuztuan baino % 60 garestiagoa denean (INEko datuak), kontua ez da komenigarria dela, baizik eta presazkoa dela Nafarroako Gobernuak energia-enpresa publiko bat eratzekeo izapidetzei ekin diezaien. Enpresa hori energia berriztagarrietan oinarrituta egonen da, NEKP-Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoan sartuta egonen da, eta energia ekoiztu, merkaturatu eta banatuko du.

Horregatik guztiagatik, behean sinatzen duten taldeek ondoko erabaki-proposamena aurkezten dute:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du susta dezan jatorriz ehuneko ehunean berriztagarria izan den energia-enpresa publiko baten eraketa, zeinak energia ekoiztu, merkaturatu eta banatuko baitu, sozietate publikoaren forma juridikoarekin eta, beraz, NEK-Pen sartuta.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du susta ditzan elektrizitate-energia berriztagarria sortzeko instalazioen proiektuak, bateragarriak biodibertsitatea eta ingu-

rumena errespetatzearekin, energia-enpresa publikoak merkaturatuko duen energiaren portzentaje ahalik handiena ekoiztekoak.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du sostengua eman diezaieen biodibertsitatearen eta ingurumenaren errespetuarekin bateragarri diren gizarte- eta udal-ekimeneko energia-komunitateetarako proiektu guztiei.

Iruñean, 2022ko irailaren 29an

Foru parlamentariak: Mikel Buil García eta Marisa de Simón Caballero

## **10-22/MOC-00087. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuia premiatzen da foru erkidegoaren intereseko inbertsio deklaratu dezan Magnesitas Navarraren ustiapen proiektua, Artesiaga aldean.**

*ANTONIO JAVIER LECUMBERRI URABAYEN JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuia premiatzen baita foru erkidegoaren intereseko inbertsio deklaratu dezan Magnesitas Navarraren ustiapen proiektua, Artesiaga aldean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Javier Lecumberri Urabayen jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, 2022ko urriaren 6ko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuia Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentua premiatzen baita foru intereseko inbertsio

deklaratu dezan Magnesitas Navarras-ek Artesiaga aldean gauzatu nahi duen ustiapen-proiektua.

Magnesitas Navarras SA (MAGNA) enpresak 75 bat urteko ibilaldia darama Esteribarko garapen sozioekonomikoaren bultzatzaile eta bertako jarduera ekonomiko nagusi bezala, eta eskualde horretako enplegu sortzaile handiena da, zuzeneko 239 langilerekin eta zeharkako 500 ingururekin.

Ezaguna da haren jardunerako beharrezkoa den materialaz hornitzen duen Eugiko meatokia kalkuluen arabera datozen sei urteetan agortuko dela; hori dela-eta, MAGNA behartuta dago meatoki berriak ustiatzera, Zubiriko bere jarduera bermatzeko.

Zenbait azterlan egin eta gero, ondorioztatu da jarduera Nafarroan mantentzeko aukera bakarra dela Artesiagako meatzaritza-proiektua deritzona: horrek, 18 milioi euro baino gehiagoan aurreikusitako inbertsio batekin, modua emanen du enpresaren biziraupenerako eta hark bere jarduerari gutxienez ere hogeita bost urtez eusteko. Hori berme mardula da enplegurako eta eskualdeko familia askoren bizi-kalitateerako.

Aipatu proiektua Artesiagako aurkintzan kokatuta dago, Erdizko larrean, Esteribar eta Baztango udal demioen artean.

Aurreikusitako kokalekua Kontserbazio Berezi-ko Eremu batean dago, eta Natura 2000 sarearen

parte da, zeinak biodibertsitatea natur habitaten eta basa fauna eta floraren kontserbazioaren bitartez bermatzen baitu.

Habitat-babes hori bermatze aldera, proiektuak halaber jasotzen du ukituriko eremua leheneratzeko plan bat, erauzketa bera egitearen aldi berean leheneratu ere, proiektua bateragarria izan dadin halatan bai ingurumenaren eta biodibertsitate-kudeaketaren beharrezko babesarekin bai eskualde horretako abeltzaintzarekin.

Joan den uztailaren 29an, enpresak foru intereseko inbertsioaren adierazpena eskatu zion Nafarroako Gobernuari.

Horregatik guztiagatik, sozialisten talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Magnesitas Navarras-ek Artesiaga aldean (Esteribar-Baztan, Nafarroa) magnesita ustiatzeko proiektua foru intereseko inbertsio deklaratu izan dadin.

Iruñean, 2022ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Urabayen

## **10-22/MOC-00088. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako eta Espainiako Gobernuak premiatzen dira Genero-indarkeriaren aurkako Estatu Itunari dagozkion funtsen ordainketa desblokeatuko duten izapideak amaitu ditzaten.**

### *JABI ARAKAMA URTIAGA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Jabi Arakama Urtiaga jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako eta Espainiako Gobernuak premiatzen baitira Genero-indarkeriaren aurkako Estatu Itunari dagozkion funtsen ordainketa desblokeatuko duten izapideak amaitu ditzaten.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko parlamentari Jabi Arakama Urtiaga jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, 2022ko urriaren 6ko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Genero-indarkeriaren aurkako Estatu Itunak Espainiako Gobernuaren ekarpen berezi bat jasotzen du, mila milioi eurokoa, indarkeria matxistaren aurkako borrokan toki, autonomia-erkidego eta estatu mailako erakundeek neurriak bultzatzeko. Nafarroako Gobernuaren estimazioen arabera, gure erkidegoak 1,5 milioi euro inguru jasoko luke, arlo horretan bultzatzen ari den politikak indartzeko.

Onetsi zenetik lau urte igarota, eta Espainiako Gobernuak hainbatetan adierazi duen arren funts horiek Nafarroara iristearen gaineko konpromiso publikoa, kontua da horrelakorik ez dela oraindik gertatu.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako eta Espainiako Gobernuak premiatzen ditu, ahalik eta lasterren amaitu ditzaten Genero-indarkeriaren aurkako Estatu Itunari dagozkion funtsen ordainketa Nafarroako Foru Komunitateari egitea desblokeatuko duten izapideak.

Iruñean, 2022ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Jabi Arakama Urtiaga



## **10-22/MOC-00089. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako eta Espainiako Gobernuak premiatzen dira beren zerbitzu publikoetan arreta presentzialaren maila pandemiaren aurreko mailetara igo dadin urte hau amaitu aurretik.**

### *ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako eta Espainiako Gobernuak premiatzen baitira beren zerbitzu publikoetan arreta presentzialaren maila pandemiaren aurreko mailetara igo dadin urte hau amaitu aurretik.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako eta Espainiako Gobernuak premiatzen baitira beren zerbitzuetan arreta presentzialaren maila pandemiaren aurreko mailetara igo dadin urte hau amaitu aurretik.

Azken urteotan jadanik joera hori bazegoen ere, batez ere Oinarrizko Osasun Laguntzan, COVID-19aren pandemiaren ondorioz neurri asko hartu ziren Administrazio Publikoek herritarrei ematen dizkieten zerbitzu publikoen arloan, presentzialak izatetik ez presentzialak izatera igaroz.

Herritar askorentzat, egoera berri horretara egokitzea oso korapilatsua izan da eta da oraindik ere. Duela zenbait hilabete, kanpaina bat abiarazi

zen, eskatze aldera finantza-entitateetan neurriak hartzea adindunei arreta presentziala eman diezaieten; horren bidezko eskaria zera zen, internet gutxiago eta tratu gizatiarragoa bankuetxeetan. COVIDaren pandemia hasi eta bi urte eta erdira, iraultza teknologikoak, adindunei berez zailtasun ugari sorrarazten ziena kudeaketa asko egiterakoa, are eragin handiagoa ekartzen die, konfinamenduaz geroztik hedatu zen presentzialtasun ezagatik.

Baina finantza-entitateen arretatik harago, egonezin handia dago Nafarroako herritar askoren aldetik, Administrazio Publikoetatik zerbitzu presentzialak ez emateagatik.

Azken hilabeteotan digitalizazioak izandako aurrerapen esponentziala edo telelana bezalako tresnen aldeko apustua ezin dira aitzakia izan arreta ez presentziala modu iraunkorrean mantentzeko. Oreka egon behar da zerbitzu publikoen digitalizazioaren eta presentzialtasunaren artean.

Kontua ez da digitalizazio prozesua geldiaraztea eta alboan uztea batzuetan telelana egingarria dela eta tresna ona izan daitekeela, baina agerikoa da presentzialtasun ezak kalitatearen galera dakarkiola zerbitzuak emateari. Atsekabea nabarmena da, este baterako, Gizarte Segurantzarekin edo Nafarroako Osasun Zerbitzuarekin izapidetzeko.

Telefono gune batekin hitz egiteak, zalantzak argitu ez eta aurkeztutako galderei erantzuten ez dienean, frustrazio eta atsekabe handia sortzen du.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako eta Espainiako Gobernuak premiatzen ditu, beren zerbitzu publikoetan arreta presentzialaren maila pandemiaren aurreko mailetara igo dadin urte hau amaitu aurretik.

Iruñean, 2022ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

## **10-22/MOC-00090. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua, udalak eta alderdi politikoak premiatzen dira lan egin dezaten lortze aldera herri-festak eta herrietako jaiak anitzak eta integratzaileak izatea, bandalismo politikorik eta gorrotorik gabeak.**

### *IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua, udalak eta alderdi politikoak premiatzen baitira lan egin dezaten lortze aldera herri-festak eta herrietako jaiak anitzak eta integratzaileak izatea, bandalismo politikorik eta gorrotorik gabeak.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Iñaki Iriarte Lopez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako mozioa aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Haren bidez, Nafarroako Parlatuak Nafarroako Gobernua, udalak eta alderdi politikoak premiatzen ditu lan egin dezaten lortze aldera herri-festak eta herrietako jaiak anitzak eta integratzaileak izatea, bandalismo politikorik eta gorrotorik gabeak.

Garai demokratiko osoan zehar zenbait talde politikok, batez ere ezker abertzalearekin eta muturreko ezkerrekin loturik, herri-festak baliatu dituzte erakusleho gisa, propaganda politikorekin benetako kanpainak egiteko. Jarraian horien artean egon dira manifestazioak, pintaketa bandalikoak eremu publiko zein pribatuetan, pankartak irainekin eta gorroto mezuekin, izaera politikoko eranskailuak, kartelak eta banderak jartzea baimendu gabeko eremuetan, terrorismoagatik edo kalte, sute eta lesioen delituengatik preso dauden omenezko ekintzak, segurtasun kidego eta indarren kideak irudikatzen dituzten panpinak erretzea, "fatxari tiro egin" etxolak, eta abar. Ba-

tzuetan, gainera, jai guneetan gertatu izan dira polizia kidegoetako kideen aurkako indarkeriazko erasoak, erakundeen eraikinen aurkako erasoak eta ordezkari politikoen zein partikularren aurkako mehatxu eta hertsapenak. Era horretan, herri gehiegitan, talde horiek eremu publikoa monopolizatzen iritsi dira, Nafarroako gizarte ezaugarritzen duen aniztasuna desitxuratzen duen irudi bat sortuz. Horren ondorioz, pertsona asko beldurtuta sentitu dira eta birtualki egotzita izan dira beren jaioterriko edo bizilekuko jaietatik.

Jarduketa horiek diren arazo larriaren eta bizikidetzari egiten dioten kaltearen gaineko kontzientzia hartu behar da. Izan ere, eztabaida eta ideien hedapen askea demokraziaren izaeraren parte bat dira, baina beti muga edukita legezkotasuna, pluralismoaren onarpena, eta aniztasuna — politikoa, nortasun arlokoa edo beste edozein— errespetatzea.

Beste alde batetik, gizarte totalitarioen aldean gizarte demokratikoak bereizten dituzten ezaugarrietako bat da isilbidezko adostasun sozial bati esker badirela propaganda alderdikoirik gabeko eremu eta denborak. Horiek lagundu egiten dute herriarren kohesioa gordetzen, erreferente partekatua eta neutral gisa jokatzeko dutelako. Gure ustez hori izan beharko litzateke herri-festen eginkizuna, Nafarroako gizarte osoaren ondare kulturala baitira.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlatuak gaitzetsi egiten du muturreko taldeek jaietako gune eta aldiak propaganda politikorako erabiltzea eta Nafarroako Gobernua, udalak eta alderdi politikoak premiatzen ditu lan egin dezaten festetan zehar bizikidetasuna hobetzeko eta lortzeko festaguneak izatea anitzak, integratzaileak eta baimendu gabeko propaganda politikorik, bandalismoagatik eta gorroto eta muturreko mezurik gabeak, bai eta terrorismoagatik eta gisako delituengatik preso daudenak omentzeko eta goraiatzeko ekintzarik gabeak ere. Helburu horrekin, premiatzen ditu eremu publikoetatik berehala ken dezaten asmo horren aurka doan mezu oro.

Iruñean, 2022ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

**10-22/MOC-00074. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-  
tzen da Nafarroako Lan Osasunaren Kontseiluan negoziata eta adostu  
ditzan lan-istripuen aurkako neurri berriak eta ekintza osagarriak.**

*GARAPEN EKONOMIKO ETA ENPRESARIALEKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea honako mozio hau Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordean izapidetu dadin: "Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-tzen da Nafarroako Lan Osasunaren Kontseiluan negoziata eta adostu ditzan lan-istripuen aurkako neurri berriak eta ekintza osagarriak".

Mozioa Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu zuen eta 2022ko irailaren 6ko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **10-21/MOC-00125. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Daniel Ortégaren Gobernu Sandinistak Nikaraguako herriaren aurka baliatutako errepresioa, eta nikaraguarrei dei egiten die etsi gabe jarrai dezaten askatasun demokratikoak aldeztu.**

### *BIZIKIDETASUNAREN ETA NAZIOARTEKO ELKARTASUNAREN BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordeak, 2022ko irailaren 27an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Daniel Ortégaren Gobernu Sandinistak Nikaraguako herriaren aurka baliatutako errepresioa, eta nikaraguarrei dei egiten die etsi gabe jarrai dezaten askatasun demokratikoak aldeztu”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten ditu Nikaraguako errepresioa eta giza eskubideen

urraketak, eta bere elkartasuna adierazten dio Nikaraguako herriari, bereziki gurean bizi diren nikaraguarrei.

2. Nafarroako Parlamentuak Ortégaren Gobernu sandinistaren aurkako nazioarteko zehapenak jartzea eskatzen du.

3. Nafarroako Parlamentuak herritarrei eskatzen die etsi gabe jarrai dezaten askatasun demokratikoak eta eskubide sozialak modu baketsuan aldeztu”.

Iruñean, 2022ko irailaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **10-22/MOC-00063. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Estatuko Gobernua premiatzen dira jaiotza-baimenak zabaltzera familia gurasobakarretara.**

### *LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNEKO, FUNTZIO PUBLIKOKO, ETA BARNEKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko, eta Barneko Batzordeak, 2022ko irailaren 27an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Estatuko Gobernua premiatzen dira jaiotza-baimenak zabaltzera familia gurasobakarretara”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du alda dezan Nafarroako

administrazio publikoetako funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen Erregelamendua onesten duen otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretuaren 16. artikulua, halako moldez non baimena 17 astez luzatuko baita familia gurasobakarren kasuan.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du familia gurasobakarretako gurasoentzako amatasun- eta aitatasun-baimenak 32 astera arte luza ditzan”.

Iruñean, 2022ko irailaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias